



Bergarako  
Udala

## BERGARAKO UDALA ETA MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO HITZARMENA

**Bergaran, bi mila eta hogeitabateko martxoaren 12an**

### **BILDU DIRA**

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkarietan.

Bestetik, Iker Badiola Etxaburu jauna, Bergarako Musika Eskolako lehendakaria, Musika Eskolaren ordezkarietan (IFZ: G20137931).

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta honako hau:

### **ADIERAZI DUTE**

1. Bergarako Musika Eskola irabazteko asmorik gabeko elkartea dela.
2. Bergarako Musika Eskolak urte askotan zehar Bergarako ume, gazte eta helduei musika eta kantua ikasteko aukera eman diela, eta horrela hornitu ahal izan direla herriko musika, talde eta abesbatzak; gainera herriko hainbat festa edo jaialditan parte hartzen duela eta horretan jarraitzeko asmoa duela.
3. Udalaren ustez, herritarrei zerbitzu hori eta hezkuntza musikala ematea onuragarria dela eta horregatik diru-laguntza eman izan duela eta orain ere emateko prest dagoela.
4. Udalak horrela eskatuta, 2014/2015 ikasturtetik Musika Eskola dantza ere irakasten ari dela.
5. Udal aurrekontua eta Musika Eskolari 2020/2021 ikasturterako eman zaion diru-laguntza onartu arte, diru-laguntza horren kontura 23.250€ aurreratzea erabaki zutela eta horretarako behin- behineko hitzarmen bat sinatu zutela 2020ko urriaren 8an.
6. 2021eko udal aurrekontua onartu dela eta Alkateak 2021eko martxoaren 11n emandako Dekretu baten bitartez erabaki dela 2020/2021 ikasturterako 188.000 euroko diru-laguntza ematea Musika Eskolari eta bi aldeen betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute

### **KLAUSULAK**

**LEHENENGOA:** Musika Eskolak orain arte bezala herritarrei musika eta dantza ikasteko aukera emango die.

Halaber, ondoren jasotakoa ere betetzeko konpromisoa hartzen du:

1. Hitzarmen honetan adosten den diru-laguntzaren barruan, Udaletik beste diru-laguntzarik jaso gabe, ekitaldi hauetan parte hartuko du Musika Eskolak :

1.1.--Bergarako Musika Eskolako gazteen bandak ondorengo ekitaldietan parte hartuko du: San Martin jaietako haurren danborradan eta aratusteetako kalejiran.



Begarako  
Udala

1.2.--Herriko talde ezberdinek eskaintzen duten Gabonetako kontzertuan Bergarako Musika Eskolak beharrezkoak diren antolaketa/bitartekaritza lanak egingo ditu.

1.3.--Musika Eskolako trikitilariak ondorengo egunetan joko dute: aratusteetako osteguneko Hartzaren kalejiran, Erramu Zapatu goizeko kalejiran eta ondorengo Iargarai kaleko emanaldian, San Martinetako feria egunean eta iraila bukaerako Kultura Kalean ekimenean.

1.4.--Begarako Musika Eskolako talde ezberdinek Udaberriko Kontzertua eskainiko dute.

1.5.-- "Apirilean Musika" egitaraua antolatuko du.

1.6.--Nekazal auzoetan, udaleko kultura zerbitzuarekin adostuta, urtean bi ekitaldi gauzatuko dira.

1.7.--Dantzari dagokionez urtean ondorengo erakustaldiak egingo dira: Aratusteetako osteguneko Hartzaren kalejiran Sorgin Dantza, Erramu zapatu goizean kalejira eta dantza erakustaldiak gune ezberdinetan, Musika eskolako gabonetako eta udaberriko kontzertuetan.

Udalak horrela eskatuz gero, udaleko bi ekitalditan bi aurrezku dantzatuko dituzte musika eskolako ikasleek.

Erakustaldi hauez gain Musika Eskola arduratuko da dantza askatuko haurren eta helduen dantza txapelketak antolatuz. Txapelketa hauen antolaketa gastuei aurre egiteko hitzarmen bereziak sinatuko dira udalarekin.

1.8.--Udalak eskatuta, honek antola dezakeen beste edozein ekitalditan parte hartuko du, aurrez elkarrekin adostuta.

2.- Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak eta Txistulari Bandak entseguetarako orain arte izan duten lokala izango dute. Bertan dagoen materiala Udalarena dela aitortzen du Musika Eskolak (Musika eskolakoak diren bi kontrabaxu izan ezik).

3.- Herritarrei edozein ekitaldiren berri emanez edo zerbitzu bat eskainiz propaganda egiten badu, Udalaren laguntza duela adieraziko du.

4.- Euskararen erabilerrari dagokionez, 2008an, Bergarako arlo soziokulturaleko elkarteek (tartean Musika Eskolak berak) eta Udalak euskararen erabilera sustatzeko *Eingou* hitzarmena sinatu zuten (ikusita eranskina). Musika Eskolak eta Udalak konpromisoa hartzen dute hitzarmen hartan jasotako egitekoak betetzeko. Horrez gain, Musika Eskolak urteko plangintza egingo du Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, urtez urte, euskararen normalizazioan sakontzen joateko (Bikain, Euskaraldia...)

5.- Musika eskolak konpromisoa hartzen du, beraien aurrekontuaren %40 gutxienez baliabide propioetatik (gurasoen kuotak, etab...) ateratzeko.

6.- Ekitaldien antolaketari dagokionez (materiala, segurtasuna, etab...), batez ere jende asko mugitzen duten ekitaldietarako, udalarekin batera lankidetzan arituko da.

7.- Musika Eskolak bere lan esparruan gizon eta emakumeen arteko genero berdintasuna sustatuko du eta hezkuntza musikal hezkidetzaila eskainiko du.

**BIGARRENA:** Bergarako Udalak, berriz ondorengo betetzeko konpromisoa hartzen du:

1) Bergarako Musika Eskolari 2020/2021 ikasturterako 188.000€ euroko diru-laguntza ematea. Dena den diru-laguntza horretatik 2020ko irailetik abendura bitartean 23.250 euro jadanik ordaindu zaizkio.

Diferentzia (164.750€) honela ordainduko dio Udalak Musika Eskolari: 2021eko martxotik ekainera bitartean, hileroko 41.187,5€ ordainduko zaizkio Musika Eskolari transferentzia bidez.

2) Bergarako Udalak honen bidez Musika Eskolari lagunduko dio bertan zehaztutako ekitaldien antolaketan udaleko lan plangintzaren barruan horretarako aukera dagoenean. Ondorengo lanak gauzatuko ditu: taulatuen eta karpunen muntaketa eta desmuntaketa, lurzorua babesteko material ipini eta kendu, frontoiko ekitaldietarako instalazioen prestaketa (argia, berogailua, anbulantzia, etab...).

Honen guztiaren eskaera garaiz egingo da. Udalak lan hauek duten kostuaren estimazioa egingo du eta zenbateko horren berri emango dio Musika Eskolari.

**HIRUGARRENA:** Hitzarmen honen iraupena 2020/2021 ikasturterako da, eta ez da luzatzen ondorengo ikasturteetara. 2020/2021 ikasturtea 2020ko irailean hasi eta 2021eko ekainean amaitzen dela ulertuko da.

Hurrengo ikasturterako (2021/2022) Bergarako Musika Eskolak diru-laguntza eskatu nahi badiu Udalari, aurrekontua aurkeztu beharko dio, eta Udalak egoki iritzitako erabakia hartuko du.

**LAUGARRENA:** Ikasturtea bukatu eta gehienez 4 hilabetera (abenduarien 31 baino lehen), aurreko urteko gorabeherak eta hurrengorako asmoak jasotzen dituen txosten bat aurkeztuko dio Musika Eskolak Udalari, eta honekin batera urteko kontuak eta aurrekontuak. Kontuok hirugarren batek egindako auditoria izan beharko dute.

Kontabilitateko dokumentazio guztia ikuskatu ahal izango du Udalak.

Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gorde beharko dituzte, gutxienez bost urtez.

Ikasturtean justifikatutako gastuak aurrekontuan aurreikusitakoak baino txikiagoak badira, diru-laguntza proportzio berdinean gutxituko da. Bergarako Musika Eskolak diferentzia itzuli egin beharko dio Udalari Udalak zehaztutako epean.

Egindako gastuak berriz, aurkeztutako aurrekontuan jasotakoak baino handiagoak badira, Udalak onartutakoa baino diru-laguntza gehiago ez du emango.

**BOSTGARRENA:** Kontratu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an hartutako 38/2003 Legea eta lege hori garatzen duen gainontzeko legedia aplikatuko da.



**Begarako  
Udala**

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

**Begarako Alkatea**



**Gorka Artola Alberdi**

**Begarako Musika Eskolako  
Lehendakaria**

**Iker Badiola Etxaburu**



## Euskararen erabilera bultzatzeko helburuak eta konpromisoak EINGOU hitzarmena 2008

### A) EZAGUTZA EDO HIZKUNTZA GAITASUNA

1. Ahalegin berezia egingo da entitateko **zuzendaritza-organoetako kideak** eta, batez ere, lehendakari, idazkari eta diruzaina, beren lana euskaraz betetzeko gaitasuna dutenak izan daitezen
2. Ahalegin berezia egingo da entitateko **begirale, entrenatzaile, irakasle zein bestelako langileak** euskaldunak izan daitezen, C3 puntuak markatutako helburuak bete ahal izateko.

### B) EUSKARAREN BARNE ERABILERA

#### B.1. ZUZENDARITZA ORGANOETAN

1. Batzar Nagusi, zuzendaritza batzorde, eta abarretako **bilerak euskaraz** egingo dira, ahal den neurrian.
2. Entitateko zuzendaritza organoetako **bilera deiak eta aktak** euskaraz idatziko dira, ahal den neurrian, eta premiazkoa denean itzuliko dira gaztelerara.


#### B.2. BARNE ADMINISTRAZIOAN

1. Entitateak bere **barne administrazioa** euskaraz eramateko ahalegina egingo du, bai ahoz bai idatziz.
2. Entitatearen estatutu, arautegi, barruko inprimaki eta gisa bereko **oinarrizko testuak euskaraz** erabiliko dira eta, euskaraz ez badaude, euskaratu egingo dira.

### C) EUSKARAREN KANPO ERABILERA

#### C.1. KANPO IRUDIAN

1. Entitatearen errotulua, kanporako inprimakiak, bazkide txartelak, zigiluak, fakturak, telefono erantzungailua, web gunea eta gisa bereko oinarrizko **kanpo erabilerako elementuak euskaraz** egongo dira eta ez badaude euskaratu egingo dira.
2. Entitatearen **publizitatea** euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egingo da, baina beti ere, euskarari lehentasuna emango zaio.



## C.2. BAZKIDE ETA HERRITARREKIKO HARREMANETAN

1. Bazkide eta herritarrekin harremanak izango dituzten pertsonak euskaldunak izan daitezen ahalegin berezia egingo da.
2. Bazkide eta herritarrei ahoz banaka zuzentzean, ahal den neurrian, lehen hitza beti euskaraz izango da.
3. Bazkide edota herritarrei **idatziz banaka** zuzentzean, "**euskaldunari euskaraz**" bidaliko zaio eta besteei, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz.
4. **Bazkide edota herritarrei modu orokorrean idatziz** zuzentzean, hartzaile denak euskaldunak badira, idatziak euskara hutsean bidaliko dira eta, bestela, euskaraz eta gaztelaniaz baina euskarari lehentasuna emanda.
5. **Ahozko komunikazio orokorretan** ere, ahal dela, euskarari lehentasuna emango zaio, erdarazkoaren aurretik azalduaz adibidez.

## C.3. ENTRENAMENDU, ENTSEGU ETA IKASTAROETAN

1. Ahalegin berezia egingo da **entrenamendu, entsegu, ikastaro**, eta abarrak euskaraz izan daitezen, bereziki 18 urtez azpiko gazte eta umeei eskaintzen zaizkien ekintzetan.
2. Ahalegin berezia egingo da entrenamendu, entsegu, ikastaro, eta abarretan erabiltzen den **material idatzia** euskaraz egon dadin, bereziki 18 urtez azpiko gazte eta umeentzako ekintzetan.

## C.4. KANPO JARDUERATAN

1. Entitateak herritarrentzako antolatzen dituen **jarduerak iragartzeko** beti eduki bertsuak izan ohi dituzten esku programa, iragarki, kartel eta abarrak euskara hutsez izango dira. Baldintza hori betetzen ez duten idazkietan euskarari emango zaio lehentasuna.
2. Entitateak antolatzen dituen kanpo jardueretan ere, ahal den neurrian, euskara hutsa erabiliko da megafoniazko mezuetan: aurkezpenetan, sari banaketetan eta abarretan.

## D) HITZARMENKIDEEN ARTEKO HARREMANAK eta BESTE ENTITATE BATZUEKIKO HARREMANAK

1. **Hitzarmena sinatzen duten entitateen arteko harremanak** beti euskaraz izango dira eta hitzarmen hau izenpetzen duten entitateen gaiei buruzko espedienteak ere oso-osorik euskaraz tramitatuko ditu entitate bakoitzak.
2. Entitatea euskaraz komunikatuko da, bai ahoz bai idatziz, posible den heinean, berarekin harremanak dituzten beste erakundeekin ere: Diputazio, Eusko Jaurjaritza, Federazio, etab.